

# 1. GAIA: KOMUNITATEA ETA KOMUNITATEKO GIZARTE-LANGINTZA

## 1.1. Komunitate kontzeptua

- a) Ikuspegi soziologikoa
- b) Gizarte-langintzaren ikuspegia

## 1.2. Kritikak eta kontzeptu alternatiboak

- a) Gizarte langintza kolektiboa
- b) Gizarte sareak

## 1.3. Komunitateko gizarte-langintzaren definizioa eta ezaugarriak

## 1.4. Komunitateko gizarte-langilearen funtzioak

### 1.1. Komunitate kontzeptua

- Komunitate kontzeptuak edukin eta definizio ezberdinak ditu ikuspegiaren arabera
- Erro etimologikoa: latineko *communis*
- *Oinarrizko ideia: Pertsonak elkarrekin bizitzen, espazio batean eta zerbait konpartitzen*
- Gure kasuan ikuspegi soziologikoari eta gizarte langintzaren ikuspegiari erreparatuko diegu

a) Soziologiaren ikuspegia

- Gizarte Zientzietan, komunitatearen ulkerera soziologiaren eragina izan du. Ferdinand Tönnies, *Komunitatea eta gizartea* (1887):
  - Komunitatea (Gemeinschaft) eta gizartearen (Gesellschaft) arteko bereizketa klasikoaren (tipo idealak)
  - Bere helburua, pertsonon arteko harremanak zergatik ematen diren azaltzea izan zen.
  - Komunitate tradizionalak vs. gizarte eredu berriak kontrajarri zituen
  - Testuinguak garrantzia du bere ideietan: industrializazioa, urbanizazio prozesua...

Komunitatea	Gizartea
Landa eremuko bizitza (herria)	Hiri bizitza
Familia, tradizioak eta ohiturak oinarri	Arauak (legeak) eta lehiatasuna oinarri ("paktu soziala")
Erligioaren garrantzia	Iritzi publikoaren garrantzia
Sentimenduek, lotura emozionalek eta kontzientziak mugiarazten dituzte harremanak	Norbanakoaren helburu eta interes arrazionalek mugiarazten dituzte harremanak
Komunitateak berak eta elizak betetzen dute kontrol sozialeko funtzioa	Gizarteak berak eta Estatuak betetzen dute kontrol sozialeko funtzioa

- Egun, soziologiak komunitate mota asko identifikatzen ditu:
  - Odolezkoak; primitiboak eta berezkoak dira, eta jatorri biologikoa dute.
  - Auzokoak; oinarrizkoak dira, landa eremuan zein hiri giroan.
  - Ideologian, adiskidetasunean, erligioan, hizkuntzan... oinarritutakoak.
  - Taldeak edo tribuak; portaerak eta jarrerak markatuta, kanpora oso irudi berezia eta propioa erakusten dutenak.
  - Zenbait erakunde sozial komunitate izendatzen dira ere (psikiatrikoak, ikastetxeak, espetxeak...).
- Komunitateek funtzio ezberdinak betetzen dituzte:
  - Pertsonen parte-hartzea bideratzen dute taldeen eta ekintza kolektiboaren bidez.
  - Laguntza, elkartasuna, seguritatea, babesa eta identitate soziala ematen dizkiete pertsoneri (Irakurgai laburra: Ubuntu).
  - Sozializazioa: kideen artean ezagutzak, jokabideak eta balioak igorritik.
  - Kontrol soziala: elkarbizitzaren arau sozialak ezarritik eta betearaziz.

#### b) Gizarte langintzaren ikuspegia

- Gizarte langintzan, komunitatearen definizioan eragina izan dute hurrengo autoreek:
  - Marco Marchioni
  - Ezequiel Ander-Egg

Marco Marchioni:

- *Komunitatea, lurralde berean bizi diren eta hainbat lotura eta komuneko interesak dituzten persona multzoa da.*
- Lau elementuk osaturikoa:
  - Lurraldea
  - Biztanlegoa
  - Baliabideak
  - Gizarte eskaria

Oinarrizko elementuak dira diagnostiko komunitarioa egiteko eta esku-hartze-estrategiak erabakitzeko.

a) LURRALDEA: Komunitatea kokaturik dagoen espazioa (errealitate fisikoa eta soziala).

Atal honetan aztertu beharreko aspektuak:

- Espazio geografikoa (kokapen fisikoa)
- Eboluzio historikoa (hurbila)
- Ezaugarri ekonomiko-produktiboak
- Hirigintza ezaugarriak
- Garraioak (barne eta kanpo komunikazioak)
- Topaketarako lekuak (plazak, espazio irekiak, natura gunek...)
- Komertzioak, ostalaritza... (ez nahastu gizarte baliabideekin)

b) BIZTANLERIA: Komunitatea osatzen duten kideen ezaugarriak eta haien arteko harremanak.

Aztertu beharreko aspektuak:

- Ezaugarri sozio-demografikoak
- Ezberdintasun sozio-ekonomikoak
- Kultura aniztasuna
- Genero harremanak
- Izaera komunitarioaren nolakotasuna
- Komunitate kideen arteko kohesio maila

c) GIZARTE BALIABIDEAK

Aztertu beharreko aspektuak (babes sistemak kontuan hartu ohi dira, adibidez):

- Hezkuntza
- Osasuna
- Elkarteak eta herri/gizarte mugimenduak (taldeak, plataformak, koordinadorak, sareak...)
- Gizarte zerbitzuak

Arlo horietako bakoitzean aurki daitezkeen baliabideak publikoak (instituzionalak) edo pribatuak (hirugarren sektorekoak) izan daitezke.

#### d) GIZARTE BEHAR, ARAZO ETA ESKARIAK

Gizarte behar eta arazoak askotarikoak izan daitezke (zaila da zerrendatzea, kasuan kasu ezberdinak aterako dira).

Kontzeptuon arteko bereizketa egitea komeni da, adibidez:

- *Gizarte beharra*: Auzoko ume guztiak eskolatzeko aukerik ez dago (plaza nahikorik ez)
- *Gizarte arazoa*: Auzoko ume guztiak eskolatuak daude, baina absentismoa %30koa da
- *Gizarte eskaria*: Auzoko ikastetxetako Gurasoen Elkarteak batu dira plaza gehiago eskatzeko (beharrari lotuta); edo absentismoarekin amaitzeko baliabide gehiago aldarrikatzeko (arazoari lotuta). Hots: begiratuko dugu gizarte behar edo/eta arazoei erantzuteko auzoan eskari zehatzak edo aldarrikapenak egin diren (zeintzuk, nortzuen aldetik, jaso duten erantzuna, etab.).

Ezequiel Ander-Egg:

Komunitatea, unitate soziala bezala perzibitzen diren antolatutako pertsonen multzoa da, non kideek komuneko ezaugarri, interes, elementu, helburu edo funtzioen bat duten, kideetasun edo pertenezia kontzientziarekin, eta eremu geografiko jakin batean kokatuta dauden; honetan, pertsonak era intentsuago batean interakzionatu egiten dute beste edozein ingurutan baino.

Aspektu subjektiboen garrantzia azpimarratzen du:

- Pertenezia (parte sentitzea, identifikazioa)
- Interakzioa (komunikazioa, interdependentzia, elkarrekiko eragina)
- Komuneko kultura (esanahi konpartituak)

GLren ikuspuntutik, komunitatearen ezaugarriak laburbilduz:

- Leku geografiko zehatza hartzen du.
- Historikoa eta dinamikoa da.
- Ohizko edo jarraikortasuna duten gizarte harremanak
- Interes, helburu, behar, arazoak... partekatzen dira komuneko testuinguru batean.
- Ekintza kolektiboan aritzen diren talde ezberdinetaz osatua
- Kideek bertakotasun sentimendua eta identitatea dute.
- Gizarte-inklusio maila handia ahalbidetzen du.

#### **1.2. Kritikak eta kontzeptu alternatiboak**

- Ez duela gizarte modernoaren konplexutasuna islatzen
- Irudi homogeneizantea eta sinplifikatzailea luzatu dezakela
- Potere dinamiken okultazioa ekar ditzakela
- Ez-gaitasun operatiboa (ideia "abstraktuegia" dela)

Komunitatearen ordeztu, beste kontzeptu batzuk erabiltzea proposatu izan da:

#### a) Kolektiboa

- Taldea edo kolektiboa: norbanakoa eta komunitatearen artean legokeen pertsona multzoa. Beraz hori hartzen da esku-hartzearen tresna edo erreferente gisa.
- “Esku-hartze kolektiboa”: esku-hartzea planteatzen da talde txiki batekin, talde bat baino gehiagorekin, biztanlego sektore batekin edota unitate sozial batekin (auzoa, herria...).

#### b) Gizarte-sareak

Britainia Handiko Gizarte Antropologian du iturburua (John Barnes eta Elisabeth Bott aintzindariak)

Definizioa: *Pertsonek eta familiek euren inguruarekin sortzen dituzten giza harremanen multzoa*

- Ez dute zertan erreferentzia espaziala edo lurraldekoa eduki behar.
- Harremanak zuzenak edo zeharkakoak izan daitezke.
- Luzaroko eragina dute pertsonarengan

#### • Gizarte sare motak:

- Naturala
- Informala
- Formala

#### • Gizarte sarea eta laguntza sarearen arteko bereizketa

#### • Gizarte sareek eskaini dezaketen laguntza motak:

- Laguntza emozionala
- Laguntza materiala edo instrumentala
- Informazio-laguntza edo laguntza estrategikoa

#### • Gizarte kapitala kontzeptuarekin harremana.

Pierre Bourdieu (1985): *“Gizarte kapitala, harreman iraunkorren sare bat edukitzearekin lotuta dauden baliabideen multzoa da; beste modu batera esanda, talde baten adhesioari lotuta daudenak”.*

### **1.3. Komunitateko gizarte-langintzaren definizioa eta ezaugarriak**

Komunitate bateko biztanleen ongizatea lortzea helburu duen gizarte ekintza profesionala da, non biztanleen parte-hartze zuzena eta aktiboa ezinbestekoa baita komunitateari eragiten dioten arazoan analisia, kontzientziazioan eta erabaketan.

KGLren abiapuntuak:

1. Komunitateek beren beharrei erantzuteko adina baliabide dute.
2. Komunitateek haien egoera hoberrantz aldatu nahi eta ahal dute, eta aldaketa hori ezberdina izango da barnekoa denean edo kanpotik ezarria denean.

3. Komunitatearen ongizaterako hurbiltze globalak inpaktu handiagoa du hurbilketa partzialek baino.
4. Demokraziak nahitaezko du herritarren parte-hartzea komunitatearen auzietan.
5. Komunitateek askotan arazoei aurre egiteko laguntza behar izaten dute, batez ere antolakuntza-mailan.

GL TRADIZIONALA	KOMUNITATEKO GL
Pertsona erabiltzailea	Pertsona herritarra
Defizientzia eta ahulezian fokoa	Ahalmena eta garapenean fokoa
Banakoaren aldaketan zentratua	Gizarte inguruaren aldaketan zentratua
<p>Dependentzia:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zerbitzuen kontsumora orientatuta</li> <li>- Taldeak funtzio terapeutikoa</li> <li>- Erabiltzailea pasiboa</li> <li>- Laguntza teknikoan konfidantza</li> <li>- Poterea, informazioa eta kontrola profesionalak du</li> </ul>	<p>Autonomia:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Auto-laguntza eta elkar-laguntza</li> <li>- Taldeak funtzio ekintzailea</li> <li>- Herritarra aktiboa</li> <li>- Laguntza ez teknikoan konfidantza</li> <li>- Poterea, informazioa eta kontrola partekatzen dira</li> </ul>
Poterearen iturburu tradizionalak	Poterearen iturburu berriak
Tokiko historia ez da haintzat hartzen	Tokiko historiaren ezagutzan oinarritua

- Komunitateko gizarte-langintzaren xedea komunitatean sor daitezkeen gizarte-arazoen gainean aritzea da.
- Gizarte-arazo horien jatorriak askotarikoak dira:
  1. Botere-banaketa desiguala
  2. Komunikazio eta elkarbizitza arazoak
  3. Beharren eta baliabideen arteko desorekak

#### 1. Botere-banaketa desiguala

- Botere harremanak generoa, klasea, arraza, sexualitatea, adina, jaioterria, etab. bezalako faktoreen arabera zeharkatuta daude.
- Horregatik, komunitatean dauden potere harremanen dinamika ezberdinak ezagutu behar ditugu.
- Komunitateko gizarte langintzak botere banaketa justuagoa sortzen saiatuko da.
- Potere iturriak anitzak dira, horren erabilerak bezala.

Erabilera negatiboa = menderatzeko erabiltzen dena ("poterea norbaiten gainean").  
 Dominazioa, errepresioa, indarkeria, koakzioa, diskriminazioa, opresioa, abusua...

Erabilera positiboak: AHALDUNTZE prozesuak

a) Subordinazioaz *kontzientzia hartzeko eta auto-konfidantza irabazteko* ("barruko poterea").

- b) Bizitzari buruz erabakiak hartzeko *antolakuntza autonomoa* (“poterea norbaitekin”).
- c) Subordinazioa eragiten duten *harremanak, estrukturak eta instituzioak eraldatzeko mobilizazioa* (“poterea zerbaitetarako”)

## 2. Komunikazio eta elkarbizitza arazoak

- Gure bizi-esperientziak eta errealitateari buruzko pertzeptzioak eta esanahiak ezberdinak izaten dira, gure arteko ezberdintasunak direla eta.
  - Talkak, gaizki-ulertuak edo inkomunikazioak sortzen dira.
- KGLri komunikaziorako eta elkarbizitzarako baliabideak jartzea eskatzen zaio.

## 3. Beharren eta baliabideen arteko desoreka

- Behar-baliabide binomioan desoreka egoteak (behar ilimitatu-baliabide limitatu) gatazkak sortuko lituzke.
- Binomio horren ezaugarriak eta ondorioak aldakorrak dira testuinguaren arabera: kasu bakoitzean azertu eta esku-hartu.

### **1.4. Komunitateko gizarte-langilearen profila**

- Komunitateko gizarte langilea gizarte-eraldaketa lortzeko bitartekoa da.
  - Komunitatearekin, komunitatearentzat baino
  - Jarrera jakin batzuk garatu
  - Eztabaida klasikoa: erreforma edo iraultza?
- Komunitatean, beste profesional batzuekin elkarlana eta koordinazioa ezinbestekoa dugu.

## **2. GAIA: KOMUNITATEKO GIZARTE-LANGINTZAREN BILAKAERA HISTORIKOA**

### **2.1. Esperientzia komunitario aitzindariak**

### **2.2. Komunitate garapenaren hedapena nazioartean**

### **2.3. Latinoamerikako birkontzeptualizazio-mugimenduaren ekarpena**

### **2.4. Komunitateko gizarte-langintzaren sorrera Espainiar Estatuan**

### **2.1. Esperientzia komunitario aitzindariak**

#### 1. Herri kooperatiboak (XIX mendea)

- Sozialismo utopikoaren proposamena. Robert Owen abiarazle.
- XIX.mendeko kapitalismo industrialak sorturiko "lantegi-herriak" kritikatu zituen.
- Berdintasunean eta pertsonen ahalmenen sustapenean oinarritzen den gizarte eredu alternatiboa garatu nahi zuen.
- Lege erreformak bultzatu zituen langileriaren eskubideen alde (lan baldintzak, hezkuntza, etxebizitza...).

Utopia praktikara eraman zuen: herri kooperatiboen esperimentu komunitarioa

- 800 lagun bildu zituen "New Harmony" deituriko komunitatean (EEBB, landa eremuan).
- Berdintasun komunitatea izateko asmoa, berezko Konstituzio batekin.
- Denborarekin, zailtasun handiak izan zuten barne kohesioa mantentzeko
- Herri kooperatiboak ez ziren zabaldu, hala ere zenbait lorpen:
  - Eragina Ingalaterrako langile mugimenduan (sindikalismoan) eta batez ere kooperatibismoaren sorreran.

2. Gizarte erakunde pribatuen lan komunitarioa: batzordeak (XIX mendea)

-Garaiko gizarte erakundetan, gizarte beharren/arazoan jatorriari buruzko bi pentsamendu ildo:

a) Faktore pertsonalak

-Pertsonaren ahulezi eta limitazioetan zentratutako ikuspuntua.

-Egoera aldatzeko, "onuraduna" eta "bisitari-lagunaren" arteko harremanean sakondu.

-Ideia hauek oinarri, banakako esku-hartzea garatzen da.

b) Faktore sozialak

-Gizartearen antolaketak sortzen ditu ezberdintasunak eta pobrezia: beraz baldintza sozialak aldatu behar. Bi modu:

-Legedian-aldaketak eragin

-Esku-hartzea, komunitatean bertan egiten hasi: BATZORDEEN sorrera (laguntza sektoreka antolatuta: hezkuntzan, osasun arloan, gaitasun anitzen arloan, etab.).

3. Settlement mugimendua: zentro komunitarioen sorrera (XIX mendea)

- Lehen egoitza (Toynbee Hall) Londreseko auzo pobretu eta marjinatu batean.
- Pobretutako pertsonak eta Oxford zein Cambridge-en graduatutako gazteen arteko hartu-emana sustatzea helburu.
- Metodologia: pobrezia egoera bakoitzari indibidualki erantzun, baina taldea eta komunitatea erabilia.
- Zentro komunitarioak Ingalaterran zabaldu ziren, geroago Ipar Amerikan Jane Addams-en eskutik.
- Ekarpena KGL-rako: komunitatearen baliabide potentzialen gauzatzearen adibidea.
- Zentro komunitarioekin antzekotasun maila bat badute egungo Gizarte-Etxeek
  - Talde sozial ezberdinen arteko topaketa erraztu eta haien arteko elkartasuna sustatzeko balio potentziala dute.

4. Komunitatearen Ongizaterako Kontseiluak (XX mende hasiera)

- AEBko industrializazioak eta urbanizazioak Europatik inmigrazio handia eragin zuten: ezberdintasun sozio-ekonomiko nabariak
- Ekintza sozialak komunitatean bertan egitearen ondorioz, Komunitatearen ongizaterako kontseiluak sortzen dira:
- Ekarpinak KGL-rako:
  - Babes-sistemen planifikazioa, komunitate zerbitzu publiko eta pribatuen antolaketak, koordinazioa eta kooperazioa.



- Komunitate antolaketaren hastapena Gizarte Langintzan

Kontseiluekin batera, Komunitateko Kutxen sorrera heldu zen:

- Gizarte erakundeen finantziario iturriak bermatzeko
- Erakundeen artean diruaren birbanaketa planifikatzeko

Egun eta gure testuinguruan, “komunitateko kutxen” adibide posibleak:

- Ahurrezki kutxak, bere sorreran behintzat langileriaren tresna: egun pisua galdu eta desagertarazi dituzte (banku bihurtuta, euskal kasuan Kutxa Bank).
- Erresistentzia kutxa, langileriaren tresna: greben oinarritzeko sostengua. Adibidea: Arabako, Bizkaiako eta Gipuzkoako erresidentzietako langileen greben sostengua izan da:

## **2.2. Komunitate garapenaren hedapena nazioartean**

- 1950eko hamarkadatik aurrera hedatua esku-hartze teknika bezala.
- Afrika, Asia eta geroago Latinoamerikan, herrialde “azpi-garatueta” industrializazio eta garapen prozesuak bultzatzeko.
- Proiektu espezifikoaren gauzapean oinarritzen da:
  - Hobekuntza materialak: etxebizitzaren eraikuntza, errepideak, ureztatze sistemak...
  - Zerbitzuen eskaintza: hezkuntza, osasunean, kulturean, nutrizioan, nekazaritzan, ekimen produktibo-ekonomikoak...
  - Akzio komunala: taldeen antolakuntza, formakuntzak, behar/arazo/gatazken azterketa kolektiboak...
- Funtsezko balioak: parte-hartzea, burujabetza, lidergotza, eragileen arteko elkarlana.
- Tokiko ikuspegia: ekintza komunitarioa tokiko garapenarekin lotzen da gero eta gehiago.

## **2.3. Latinoamerikako birkontzeptualizazio mugimenduaren ekarpena**

- Testuingurua: 60. hamarkada (deskolonizazio eta prozesu askatzaileak, autoritarismoaren kontrako joerak, jendarte alternatiboak eraikitze proposamenak, teoria kritikoen garapena...)
- Gizarte Langintza ber-pentsatzeko beharra aldarrikatzen da Latinoamerikan: Araxáko deklarazioa abiapuntua (1968).
- Herrialdeen testuinguruak esku-hartzea baldintzatzen du: ezin dira Gizarte Langintzaren ereduak “inportatu”
- Testuingurua deskribatu ez ezik, analisi politiko-ideologikoen alde: hots, praktika profesionala politizatzearen alde.

KGLri eginiko ekarpenak:

- Instituzioek status quo-aren mantenuan duten irakurketa kritikoa
- Lan komunitario eta interdisziplinarraren garrantzia
  - Kontzientzia hartze prozesuei funtamentazio teoriko berriak
  - Praktika eta metodologia berriak
- Baztertuak diren pertsonetako hurbilketa ezberdina:

- Esku-hartze oso kontestualizatuak edo kokatuak
- Komuneko bizipenak, esperientziak, partekatuz.
- “Ahotsik gabekoak”, “ezberdinak”, “besteak”... bezalak hartzen diren horien ezagutzaz ikasiz.
- Baztertua subjektu aktibo bihurtzen da, eraldaketa prozesu sozialen protagonista.
- Herri sektoreekiko konpromisoa daraman praktika: herri/gizarte mugimenduekin lotura gehiago.

## **2.4. KGLren sorrera Espainiar Estatuan**

- Berritasuna (60ko hamarkadatik aurrera).
- Testuinguruaren ezaugarriak: diktadura frankista
  - Lan komunitarioaren garapena oso mugatua zen
  - Askatasunaren, demokraziaren aldarrikapenen eta partaidetzaren errepresioa
  - Ongintza eta paternalismoa hedatuak akzio sozialean (Erregimena eta Eliza Katolikoaren arteko alianza)
  - Espainiar Estatuak azpi-garapenaren ezaugarriak zituen (hiri zein landa eremuetan)
  
- KGLren lehen esperientziak:
  - 1) Marco Marchioniren lanaren eskutik (gizarte langile italiarra)
    - Partaidetza komunitarioa = Estatuaren demokratizazio politiko eta sozialerako tresna
    - KGLri buruz Espainiar Estatuan argitaratu zen lehen liburuaren egilea: *Comunidad y desarrollo* (1969), Nova Terra, Bartzelona.
    - Lehen esperientzia praktikoa: Vélez (Málaga). Erreferentzia: *“Iniciativas para el desarrollo comunitario en comarcas rurales. El proyecto de Vélez-Málaga”*.
  
  - 2) Montserrat Colomer (gizarte langile kataluniarra)
    - Gizarte Langintzaren metodologiaren inguruan ekarpenak.
      - El método básico en Trabajo Social, Revista de Trabajo Social, 75, 1974, Bartzelona.
      - Berari egindako elkarrizketa
    - Bartzelonako San Adrián de Besós udalerrian dagoen “La Mina” auzo periferiko, marginatu eta estigmatizatuan 1970. harmakadan egin zuen lan.
  
  - 3) Hirietan, lehen programa komunitario esperimentalak
    - Adibidea: *Plan Social Baza. Una experiencia de Desarrollo Social* (1970), Granada.
  
  - 4) 1990tik aurrera: KGL instituzionalizatzen hasten da, pobrezia-aren aurkako programen eskutik (EUREN laguntzekin).
  
  - 5) 2000tik aurrera: KOMUNITATE PLANEK protagonismoa irabazi
    - Auzo mailakoak dira batez ere. Gizarte eragile ezberdinen partaidetza bilatzen da. Instituzioak abiarazleak izaten dira.
    - Integralak (auzo osorako) edo sektorialak izan daitezke.
    - Plan integralen adibideak EHN: Bilbao La Vieja, San Frantzisko eta Zabala (Bilbo); Otxarkoaga (Bilbo); Altza (Donostia), Alde Zaharra (Iruñea-azokideak abiarazleak)

- Plan sektorialen adibidea, hezkuntza arloan: Berrizeko Komunitate Prebentziorako Plana

### 3. GAIA: KOMUNITATE MAILAKO EREDU TEORIKO-METODOLOGIKOAK

#### 3.1. Teoria soziologikoen eragina Komunitateko gizarte-langintzaren ereduetan

#### 3.2. Komunitateko gizarte-langintzaren eredu sailkapenak

3.2.1. Rothmanen tipologia: gizarte-plangintza, herri garapena eta gizarte-ekintza

3.2.2. Twelvetress-en tipologia: eskola profesionala eta eskola sozialista

#### 3.1. Teoria soziologikoen eragina KGLaren ereduetan

- Teoria batek baino gehiagok izan dute eragina, baina batez ere:
  - Funtzionalismoa
  - Gatazkaren teoria
  - Teoria interpretatiboak

FUNTZIONALISMOA	GATAZKAREN TEORIA
Kontsentsuaren paradigmaren barne	Gatazkaren paradigmaren barne
Gizarte ordena pertsonon arteko akordio tazitu baten ondoriozkoa da (kontratu edo paktu soziala)	Gizarte ordena dominazio posizioan dauden taldeen kontrolean oinarritzen da (talde sozial batzuk beste batzuk menperatzen dituzte)
Gizarte ordena mantentzeko estruktura eta instituzio sozialek duten funtzioetan interesa	Gizarte ordena mantentzeko estruktura eta instituzio sozialetan ematen diren botere dinamiketan interesa
Aldaketa soziala modu geldo eta ordenatuan ematen da	Aldaketa soziala azkar eta modu desordenatuan ematen da, talde menperatuak menperatzaileak irabazi ahala
Eragina KGLaren ereduetan: -Gizarte portaerak eta egoerak, erregularitatearen eta oreka sozialaren ikuspuntutik aztertuak -Hortik kanpoko portaerak eta egoerak disfuntzionalizat (desbideratuztat) hartzen dira. -Gizarte arazoaren indibidualizazioa	Eragina KGLaren ereduetan: -Gizartean etengabeko interes gatazkan dauden bi talde sozial daude: 1) Baliabideak izanik sistema sostengatzen dutenak 2) Baliabideak ez izateagatik, sistematik at geratzen direnak ("onuradurak"bihurtuz) -Gatazka sozialak, ezberdintasun egoeren isla

TEORIA INTERPRETATIBOAK
Gertaera sozialen aspektu subjektiboetan zentratuak
Errealitatearen azterketa maila makroaz gain, maila mikroan ere egiten da
Subjektuen akzioari (inbiduala edota kolektiboa) garrantzia gehiago ematen zaio egestura eta instituzio sozialei baino (egiturek ez dute guztiz baldintzatzen subjektuen ekintzarako ahalmena)
Eragina KGLaren eredueta:
-Gizarte rrealitatearen ulermen subjektiboaren garrantzia (nola perzibitzen dugun mundua, zer esanahi ematen diegun gertaerei, zeintzuk dira gertaerei buruzko gure diskurtsoak, etab.).
-Profesionalak, pertsonak egoera sozialei ematen dizkieten esanahiak eta interpretazioak ezagutu behar ditu, eta aldaketarako duten ahalmenetik abiatu.

### 3.2. KGLaren ereduaren sailkapenak

#### 3.2.1. Rothmanen tipologia

GIZARTE PLANGINTZA	HERRI/TOKIKO GARAPENA	GIZARTE EKINTZA
Erabiltzaileak zerbitzuen kontsumitzaile aktibotzat jotzen dira	Erabiltzaileak biztanletzat jotzen dira (herritarrak)	Komunitatea botere egitura hierarkizatua eta injustua da. Bertan, erabiltzaileak biktimatzat jotzen dira.
Ez dute parte hartzen erabaki politikoetan ezta esku-hartzeari buruzko erabakietan	Parte hartze aktiboa dute komunitateko erabakietan	Komunitateko liderrek helburuak eta ekintzak erabakitzen dituzte
Egitura instituzionalak babes eta kontrol gaitasunak dituzenez, esku-hartzearen erantzukizuna du.	Egitura instituzionala komunitateko egituraren parte gisa ikusten da, herritarren helburu berekin.	Egitura instituzionala komunitatetik kanpo dagoen elementutzat jotzen da, oposizioak eta zapaltzailea
Profesionala, aditua edo jakitunaren rola hartzen du.	Profesionalak trebatzailearen rola hartzen du	Profesionalak ekintzaile eta antolatzailearen rola hartzen du
Komunitate-antolaketaaren ildoan kokatzen da.	Komunitate-garapenaren ildoan kokatzen da.	Gatazkaren teoriaren ikuspegia.

#### 3.2.2. Alan Twelvetress-en sailkapena

ESKOLA PROFESIONALA	ESKOLA SOZIALISTA
Kontsentsuaren paradigmatic hurbilago	Gatazkaren paradigmatic hurbilago (pentsamendu kritiko-dialektikoa)
Taldeen elkarren arteko laguntzan interesatuak	Presio-taldeek ekintzan arreta gehiago
Esku-hartze komunitarioen osagai teknikoak, osagai politikoak baino garrantzi gehiago	Esku-hartze komunitarioa politizatzen da eta "klasearteko borroka"ren baitan kokatu
Esku-hartze batez ere zentratuak, ez hainbeste gizarteari buruzko teoria orokorretan	Helburua gizarte sozialista lortzea izanik, sozialismoa defendatzen duten taldeen boterea indartzean zentratuak (adibidez langileriaren elkarteak).
Rothmanen "Gizarte planifikazioa" ereduaren ezaugarriekin bat egiten du.	Rothmanen "Gizarte-ekintza" ereduaren ezaugarriekin bat egiten du.

Eskola sozialistaren adibidea:

- Saul Alinsky eta haren metodoaren faseak
  - Egoeraren azterketa errealista ("hot issues"; biztanleriaren beharrak, interesak, kezak...)
  - Lidergoak eta parte-hartzaileak hautatu eta prestatu
  - Erakunde autonomoa sortu
  - Helburu argiak eta lortzeko modukoak jarri
  - Ekintzak planifikatu (presioa eragiten dutenak, negoziatzera behartzen dutenak)

## 4. GAIA: KOMUNITATEKO ESKU-HARTZEAREN ERRONGA: PARTE-HARTZEA

### 4.1. Testuingurua: globalizazio neoliberala

### 4.2. Gizarte zibilaren parte-hartzea demokrazia ordezkatzaileretan

### 4.3. Parte-hartze zuzenaren onurak, zailtasunak eta baldintzak

### 4.4. Elkartegintza eta boluntarioria

### 4.5. Gizarte mugimenduak

#### 4.1. Testuingurua: globalizazio neoliberala

- 1970 hamarkatik aurrera, neoliberalismoaren indartzea mundu mailan. Bere ezaugarri nagusiak:
  - Liberalismo klasikoan oinarrituta ("laissez faire, laissez passer"; eskaintza eta eskariaren legea; lehiakortasuna...)
  - Ekonomian, askatasun osoaren alde: Estatuak ez du inola ere esku-hartu behar (Estatu minimoaren ideia)
  - "Kapitalismo basatia" ere deitua: "Hoberen lehia dezakeenak bizi-iraungo du, Estatuak ez da sartu behar"

- Neoliberalismoaren tresnak: desarautzea, pribatizatzea, ajuste politikak

### 1. DESAURATZEA:

- Jarduera ekonomiko bat kontrolatzen duten arauak murrizteko edo ezabatzekeo prozesua da, merkatuko indarrek zehaztu dezaten eskaintzaren eta eskariaren arteko oreka.
- Eskubideak babesten dituzten arauen adibideak:
  - Lan Harremanetan: profesioen arteko gutxieneko ordainsaria
  - Nekazaritzan: produktuen erosketa gutxieneko prezioa (produktzio kosteen gainekoa).
  - Osasunean: Txertoak komertzializatzeko baldintzak
  - Ingurugiroa babesteko arauak
  - Hostalaritzan: negozioren irekiera eta itxiera ordutegiak

### 2. PRIBATIZATZEA:

- Espainiar Estatuan, 1980 hamarkadatik aurrera dozenaka enpresa publiko pribatizatu dira, sektore estrategikoetan:
  - Elektrizitatea (Red Eléctrica)
  - Gas-a (Endesa)
  - Petroleoa (Instituto Nacional de Hidrocarburos, orain Repsol)
  - Garraioak (Iberia, SEAT, AENA...)
  - Telekomunikazioak (Telefónica, orain Movistar)
  - Aeronautika (Aenor)
  - Siderurgia (Acelaria-Sidenor)
  - Banka (Argentaria, orain BBVAn sartuta)
  - Etab.

### 3. AJUSTE POLITIKAK ETA AUSTERITATE FISKALA (zerga progresiboen kontra)

Gehiengoarentzat, neoliberalismoak ondorio oso kaltegarriak ditu:

- Desberdintasunak areagotu ditu
- Ezegonkortasuna, prekarizazioa, esklabotza egoerak
- Ongizate Estatuaren demantelazioa (babesak murriztuz doaz)

KGLren erronkak testuinguru honetan:

- Erronka orokorrak
- Neoliberalismoaren arriskuak:
  - Komunitate lana aldarrikatu ongizate-estatuaren desagerpena osatzeko (helburu utilitarista)
  - Sortarazten dituen ondorio kaltegarrien aurrean, muturreko indibidualismoa sustatzen jarraitzen du
- Erronka zehatzak
  - Gizarte Zerbitzuen antolaketak ez du KGL errazten (aldea diskurtsoak eta praktikaren artean)
  - Bulegoko logika profesionala eta baliabideen kudeaketa.

- Gero eta ekintza indibidualizatuagoa (eskaeren gorakada, baliabideen murrizketa, burokratizazioa...).
- Gizarte Zerbitzuen pribatizazio prozesua.

#### **4.2. Gizarte zibilaren parte-hartzea demokrazia ordezkatzaileran**

- Komunitatearen ongizatearen eragile nagusiak:

-Estatua: eremu publikoaren eta arautzailearen adierazle.

-Gizarte zibila: eremu pribatuko ekimen ezberdinen adierazle.

-Merkatua: enpresak



- Parte-hartzeko bideak egungo demokrazia ordezkatzaileran
  - Eskubideen jarduera indibiduala: bozka batez ere. (baita iradokizun, erreklamazio, kexak... aurkeztea ere)
  - Boluntariorza
    - Elkarteetan parte hartzean datza.
    - Elkartasun printzipioan oinarritua.
  - Gizarte mugimenduak
    - Parte-hartze espazio autonomoak.
  - Partaidetza planifikatua (batez ere tokiko mailan)
    - Administrazioaren organoetan parte hartu gizarte zibilaren ordezkari gisa
    - Adibideak Gasteizen: Udal Kontseilua, Elkarguneak (sektorialak), Auzoguneak (lurraldekoak)

Parte-hartzea, egun, legeak babesten du:

- Espainiar Estatuan
 

Espainiar Konstituzioa (1978): Botere publikoek hiritarren partaidetza bizitza politikoan, ekonomikoan, sozialean eta kulturean erraztu behar dute.
- Euskadin
 

Euskal Autonomia Estatutua (1979): ekimen pribatuaren arloan eskumena. Hortaz, Fundazioen, Elkarteetan, Boluntariorzaren eta Hirugarren Sektorari buruzko lege propioak.

-Gizarte-zerbitzuen euskal legea (2008):

-Administrazio publikoek dute gizarte-zerbitzuen sistemaren ardura.

-Hala ere, zerbitzu horiek bermatzeko gizarte zibilaren ekimenen laguntza izango dute.

-Horregatik, administrazio publikoen erantzukizuna da:

-Irabazi asmorik gabeko ekimen pribatuen partaidetza sustatzea (Hirugarren Sektorea)

-Boluntariora eta elkartasuna sustatzea

### **4.3. Parte-hartze zuzenaren onurak, zailtasunak eta baldintzak**

- Partaidetzarako erreferente historikoak izan diren erakundeen (alderdi politikoak, sindikatuak, eliza...) legitimitatea zalantzan jarria.
  - Ordezkaritza krisiaz hitzegiten da.
- Instituzioek, galdutako legitimitatea berreskuratzeko beharra; era berean, gizarte zibilak parte hartzeko aukera berriak sustatzeko nahia.
  - Demokrazia ordezkatzaileaz haratago, demokrazia parte-hartzailea edo zuzenaren ideia eta praktika gorantz egin du.

Parte-hartzean zailtasunak ager daitezke, besteak beste:

- Egoera pertsonal edota kolektibo ezegonkorak
- Parte-hartzeko informazio eta formazio gabezia
- Egoeraren azterketak egiteko eta erabakiak hartzeko gaitasun falta
- Partehartzaileak diren prozesuen geldotasuna
- Desadostasunak parte-hartzearen esanahiari dagokionez
- Parte-hartzeko baliabide eta aukera eza
- Parte-hartzea sustatu beharko luketeen eragileen koordinazio edota borondate falta
- Administrazio publikoek gizarte eragileekin boterea partekatu nahi ez izatea
- Gizarte eragileen mesfidantza eta beldurra administrazioarekiko mendekotasunari

Zailtasunak ezagututa, partaidetza bultzatzeko erronka dugu.

Behintzat gure aldetik bermatu beharreko hiru baldintza:

- Herritarrek parte hartu nahi izatea: MOTIBAZIOA
- Herritarrek parte hartu ahal izatea: AUKERA
- Herritarrek parte hartzen jakitea: FORMAKUNTZA



#### 4.4. Elkartegintza eta boluntariotza

##### a) Elkarateak

- i) Partaidetza komunitarioa batez ere elkarateen bidez egiten da.
- ii) Elkartegintzak Euskadin arautze propioa du (1988, 2007, 2016):
  - 1) Elkarateen tipologia legean:
    - (a) Xede partikularrak dituzten elkarateak: elkaratekideen alde bideratzen dituzte haien jarduerak.
    - (b) Xede orokorrak dituzten elkarateak: elkaratekideen interesen gainetik, gizarte osoaren aldeko jarduerak.

KGLren ikuspegitik, elkarate bat:

*Pertsona fisikoek (gutxienez hiruk) aurrera eramaten dituzten xede edo interes orokorreko ekimenen multzoa da. Ekimen horiek helburu jakin batzuk lortzeko egingo dira (irakaskuntzan, kulturean, berdintasunean, ingurugiroan, artean, zientzian, osasunean, kirolan, lankidetzan, eta abar).*

Legez EZ dira elkartetzat hartzen:

- Irabazi asmoa duten elkarateak
- Alderdi politikoak
- Sindikatuak
- Elkarate erlijiosoak
- Lanbide-elkarateak

Elkarate eta instituzioen arteko oinarrizko harremanak

#### 1. DIRU-LAGUNTZAK

- Deialdi publikoen bidez (lehiakortasuna)
- Epe motza
- Elkarateak da egingo diren jardueren arduraduna (titulartasun pribatua)

#### 2. HITZARMENAK

- Laguntza zuzena da, deialdi publikorik gabe
- Epe ertaina
- Instituzioa da zerbitzuaren/baliabidearen arduraduna (titulartasun publikoa)

#### 3. KONTRATUAK

- Instituzioek elkarate zein enpresak kontratatzen dituzte zerbitzu publikoak kudeatzeko, deialdi publikoen bidez (lehiakortasuna)
- Epe ertaina
- Instituzioa da zerbitzuaren/baliabidearen arduraduna (titulartasun publikoa)
  - Azpi-kontratazioaren edo externalizazioaren fenomenoak
  - Publiko-pribatuaren arteko kolaborazioaren ereduari lotuta.

## b) Boluntariotza

Historikoa da, baina arautze progresiboa izan du.

Egun, legez, zenbait baldintza ditu:

- Librea eta kontzientea
- Autonomia
- Giza eskubideen errespetuan oinarrituta
- Antolatua, gutxieneko estruktura batean ematen dena (elkarteak)
- Solidarioa eta aldetaren aldekoa
- Eskuzabala, interes orokorrekoa
- Doakoa
- Osagarria (ezin ditu zerbitzu profesionalak ordezkatu)

Euskadiko zenbait datu boluntariotzari buruz (EDE Fundazioa, 2017)

Eboluzioa 2012-2017

Igoera: %8,6 →%13,4 (Estatu espainiarra: %8,5)  
Gazteen artean igoera nabariena: %19,3 →%28,3%  
Okupatutakoen artean igoera: %43,1→%50%  
Unibertsitate tituludunen artean igoera: %27,4→%39,6%  
Boluntariotza potentzialaren igoera: %11→%22%

2017an sarrien agertzen den profil-tipoa

Emakumea (%51), 44 urte inguru, Euskadin jaioa (%85,9), Bizkaian bizi da (%51,6), tamaina ertaineko udalerrri batean bizi da (%51,6), okupatuta dago (%50), unibertsitate ikasketak ditu (%39,6) eta bikote batekin eta seme-alabekin bizi da (%32,1).

2017ko bestelako datuak

- Gehiengo bazterketa arriskuan dauden pertsonekin (%26,6) eta herri ekintzan (auzo, adineko eta emakumeen elkarteak) (%15,3).
- Bolondres gehiago 18-29 bitartekoetan (%29,9), 64 urte baino gehiagokoetan baino (%7,5).
- Bolondres gehiago ikasketak (%30,1) eta unibertsitate ikasketak dituztenen artean (%16,8).
- Sexua: emakumeak gehien bat gizarte ekintzan eta nazioarteko lankidetzan, eta gizonak gehien bat kirolean eta enpleguaren sustapenean.
- Adina: gazteak gehien bat asialdian, eta pertsona nagusiak gizarte eta herri ekintzan.

## **4.5. Gizarte-mugimenduak**

Ezaugarri batzuk:

- Interakzio informaleko sareak, eremu instituzionaletik eta gizarte bizitzaren ohiko prozeduretatik kanpo kokatuak.
- Egoera gatazkatsu bat bistaratu nahi dute eta horri konponbideak proposatu.
- Denboran jarraipena dute.
- Gizarte inklusio maila altua eskaintzen dute.

Gizarte mugimenduen adibideak

- Langile mugimendua      -Mugimendu feminista      -Mugimendu ekologista
- Arrazakeriaren aurkako mugimendua      -Nekazari mugimendua      -LGTBIQ+ mugimendua
- Mugimendu antimilitarista/bakearen aldekoa      -Auzo mugimendua
- Ikasle mugimendua      -Euskararen eta euskal kulturaren aldeko mugimendua
- Mugimendu internazionalista      -Mugimendu indigena      -Etab.

Ekintza kolektibo mota hau emateko faktoreak:  
(Pedro Ibarra, 2011)



- Bidegabekeri bat existitzen denaren sinismen eta sentimendu partekatua, eta norbait/zerbait horren erantzule dela.
- Bidegabekeri hori kolektibo bat kaltetzen duela, zeinarekin mobilizatzen diren pertsonak elkartasuna sentitzen duten.
- “Gu” bat existitzen denaren kontzientzia, identitate kolektibo bat, zeina bidegabekeriaren erantzule dirennek urratzen duten.
- Mobilizazio kolektiboaren bidez, elkarrekin bidegabekeri hori gainditzea posiblea den uste partekatua.